

Hititen eta euskal ontzi baten hondoratzea



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Anatolia, duela 3.200 urte. Hititen inperioa hondoratu egin zen. Brontze Aroko potentzia nagusietakoa, besteak beste, asiriarren eta egiptoarren aurka aritutakoa, oso urte gutxitan desagertu zen. Sumendiak, lurrikarak, piratak, migrazioak, inbasioak, epidemiak... hipotesi asko bota dira bat-bateko gainbehera azaltzeko, baina berriki *Nature* aldizkarian argitaratutako ikerlan batek argitu du misterioa: hititen inperioak ezin izan zion aurre egin hiru urteko lehorte luze bati (K.a. 1298-1296). Erantzun zehatza zuhaitzen enborren eraztunetan irakurri du Sturt Manning Cornell unibertsitateko arkeologoak, hau da, dendrokronologia erabili du.

Horretarako, Gordionen (Turkia) dagoen Midas erregearen hilobiko egurrezko ganbera aztertu du –errege ezagunaren izena duen arren, ez dakigu zein erregerentzat eraiki zuten–. Ganbera duela 2.700 urte inguru eraiki zuten ehundik gora enbor erabiliz. Frigiako erresumaren garaian izan zen hori, Hititen gainbehera baino mende batzuk geroago. Baina ipuruaren egurra erabili zuten, eta zuhaitz espeziea luze bizi ohi denez, hemezortzi enbor identifikatu zituzten hititen garaian bizirik zeudenak. Eta guztietan aurkitu dituzte muturreko ur eskasia adierazten duten hiru eraztun bereizgarriak.

Baina, dendrokronologiari esker, enborrak ez dira soilik egutegiak; mapak



Midas erregearen hilobiko ipuru enbor hauetan dago idatzita hititen inperioaren gainbehera.

ere badira. Tokian tokiko eraztunen sekuentziak osatu ahala –Kalifornian *Pinus longaeva* espeziearen 8.000 urtetik gorako kronologia osatu dute–, egurra noizkoa den jakiteaz gain, nongoa den ere jakin daiteke.

2002an Galesko Newporteko portu zaharrean XV. mendeko ontzi-hondarrak aurkitu zituzten. Nigel Nayling dendrokronologoak datatu zuen 26 metroko ontzia, baina ontziko egurraren eraztunak Erresuma Batuko erreferentzia dendrokronologiko ugariekin alderatuta, ez zuen sinkronizaziorik topatu. Egur hura ez zettorren britainiar uharteetatik. Osa-

tutako sekuentzia Europan ezagutzen zituen laborategietara bidali zuen eta, hala, Arkeolanera iritsi zen 2005ean. Baina orduan Arkeolanek osatua zeukan erreferentzia kurba mugatua zen. 2011n eta 2012an, XIII. mendera arte luzatu zuten eta Josue Susperregi dendrokronologoak Newporteko erreferentziekin alderatu zuen. Eta biek bat egin zuten. Nayling berehala etorri zen Euskal Herrira eta Irungo laborategian, Susperregirekin batera, astebetean egiaztatu zuen sinkronizazioa perfektua zela. Newporteko 26 metroko ontzia Euskal Herrian hazitako haritzek eraiki zuten. ●

DOSSEMAN



ISRAELGO ANTZINAROKO AGINTARITZA

Erromatar adreiluak maletategian

Jerusalemgo ohiko polizia-kontrol batean, auto baten maletategia ireki eta erromatar garaiko hainbat adreilu aurkitu berri dituzte ezustean. Adreiluak *Legio X Fretensis* marka dute eta, horri esker, adituek uste dute adreiluak Hadriano enperadorearen garaian, K.o II. mendearen hasieran fabrikatu zituztela Hebron inguruan, eta eraikin

publiko batean erabili zituztela. Adreiluak hobeto aztertuta jatorrizko eraikin hori aurkitzeko itxaropena dute adituek, baina aztarnategia espoliatzaileek arkeologoek baino lehen topatu dutenez, ez dakite ondarearen zati hori honezkero merkatu beltzean sakabanatua eta galdua egongo ote den. ●